

[EUSKAL AEko TXIKIZKAKO MERKATARITZAREN INDIZEA \(BMIT\). 2013ko 2. hiruhilekoa](#)

Euskal AEko txikizkako sektorearen salmentak %0,9 jaitsi ziren 2013ko bigarren hiruhilekoan

Aurreko hiruhilekoaren aldean, salmenta-indizea %0,8 nominala jaitsi da

Eustatek emandako datuen arabera, Euskal AEko txikizkako merkataritzaren sektorean, 2013ko bigarren hiruhilekoan, salmenta nominalak %0,9 jaitsi ziren, aurreko ekitaldiko hiruhileko beraren aldean, eta lan-egutegi homogeneoetan. Gasolindegia sartu gabe, sektoreko salmentak %1,9 jaitsi ziren urte artekoan.

Aurreko hiruhilekoaren aldean salmenta-indizea %0,8 nominala jaitsi da, urtaroginaren kenduta.

1. taula. Euskal AEko txikizkako merkataritzaren indizea. Urte arteko eta hiruhileko arteko aldakuntza-tasa. 2. hiruhilekoa. 2013(p)

	UNEKO PREZIOAK		PREZIO FINKOAK	
	t / t-4	t / t-1	t / t-4	t / t-1
INDIZE OROKORRA lurralde historikoaren arabera				
Euskal AE	-0,9	-0,8	-3,7	-1,6
Araba	-0,5	0,0	-3,4	-0,5
Bizkaia	-1,3	-1,5	-4,0	-2,6
Gipuzkoa	-0,5	-0,1	-3,3	-0,5
INDIZE OROKORRA sektorearen arabera				
Elikagaiak	-1,4	-1,0	-4,6	-1,4
Elikagaietan espezializatuta	3,1	-0,1	-1,2	-1,4
Ez espezializatuta, elikagaidunak bereziki	-3,4	-1,3	-6,2	-1,9
Beste produktuak	-2,3	-2,2	-4,8	-2,3
Pertsonen hornikuntzan espezializatuta	-8,6	-3,5	-12,5	-4,2
Etxearen hornikuntzan espezializatuta	-0,9	0,6	-1,7	0,3
Beste kontsumo ondasun batzuetan espezializatuta	0,8	0,3	-0,6	0,5
Ez espezializatuta, gainerako produktudunak bereziki	9,8	3,3	7,4	0,3
Automoziorako erregaia	7,6	6,5	6,4	3,5
SALMENTEN INDIZEA zerbitzugunerik gabe	-1,9	-1,7	-4,7	-1,9
ENPLEGU INDIZEA				
Euskal AE	-5,0	-1,0		

t / t-4 Urte arteko aldakuntza. Egutegiaren eragina zuzendutako datuak.

t / t-1 Hiruhileko arteko aldakuntza. Datu desestazionalizatuak.

Iturria: EUSTAT. Euskal AEko txikizkako merkataritzaren indizea (BMIT)

Elikagaien salmenta nominalak %1,4 murriztu ziren 2013ko bigarren hiruhilekoan; Gainerako produktuenak %2,3 jaitsi ziren eta automobilgintzarako erregai-salmenta %7,6 gehitu, beti ere 2012ko aldi beraren aldean.

Elikagaien txikizkako merkataritzan espezializatua %3,1 handitu zen, eta elikagaiak nagusi diren ez-espezializatua %3,4 murriztu. Gainerako produktuen txikizkakoan igoera dago gainerako produktuak nagusi diren ez-espezializatua (%9,8) eta beste kontsumo-ondasunen espezializatua (%0,8); indar ezberdinetako jaitsierak gainerako sektoreetan. Pertsonaren ekipamenduaren espezializatua %8,6 jaitsi zen eta etxeko ekipamenduarena %0,9.

2013ko bigarren hiruhilekoan txikizkako sektoreko salmenta nominalak %1,3 murriztu dira Bizkaian urte artean; lurraldeetako jaitsierarik handiena. Bai Araban, bai Gipuzkoan salmenta nominalak %0,5 gutxitu ziren.

Prezio finkoetan, txikizkako merkataritzaren salmentak %3,7 murriztu ziren bigarren hiruhilekoan urte artean

Txikizkako salmentek -gasolindegia sartu gabe- %4,7ko jaitsiera errealaren aldean -prezio finkoetan- izan zuten 2012ko bigarren hiruhilekoaren aldean.

Elikagaien txikizkakoan jaitsiera errealaren %4,6 izan zen; Gainerako produktuetan %4,8, 2012ko hiruhilekoaren aldean, eta automobilgintzarako erregai-salmentetan %6,4ko hazkundera.

Elikagaien txikizkakoan urte artekoak negatiboak izan dira bai espezializatuan %1,2, bai elikagaiak nagusi diren ez-espezializatuan, %6,2. Gainerako produktuetan jaitsierak denetan, Gainerako produktuak nagusi diren ez-espezializatuan izan ezik, zeina %7,4 hazi baitzen. Pertsonaren ekipamenduan %12,5eko jaitsiera; etxeko ekipamenduan %1,7koa; kontsumoko beste ondasunetan %0,6koa, beti termino errealean.

Hiru lurraldeetan izan zen jaitsierarik salmentetan termino errealean: Gipuzkoan %3,3, Araban %3,4, Bizkaian %4,0.

Euskal AEko txikizkako merkataritzaren salmenta errealean %1,6ko jaitsiera izan da aurreko hiruhilekoaren aldean eta urtaro-eraginak kenduta.

Euskal AE osoan, 2013ko lehen hiruhilekoaren aldean, merkataritzako sektorean landunen kopurua %1,0 murriztu da 2013ko bigarren hiruhilekoan.

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa zerbitzua: servicioprensa@eustat.es Tel.: 945 01 75 62

Euskal AEko Txikizkako Merkataritzaren Indizearen gaineko prentsa-ohar gehiago

Euskal AEko Txikizkako Merkataritzaren Indizearen gaineko datu-bankua